

Irungo iruzurra

Irailaren 19tik azaroaren 21era, 46 pertsonak deklaratu dute Irungo Auzitegian Gipuzkoako Foru Ogasunean ustez gertatutako iruzurraren lekuko eta kaltetu bezala. Han izango dira euren zerga-zorrak Irungo bulegoko zuzendari ohia, Jose Maria Bravori, ordaintzea adostu zutenak. Bravo da auzipetu nagusia eta egun, behin-behineko espetxealdian dago, ustez sei milioi euroko iruzurratik. Bere anai eta EAJko senatari Victor Bravok dimisioa aurkeztu zuen. Akusazioaren arabera, Bravok beherapenak eskaintzen zituen zergetan eta txeke zein eskudiruzko ordainketez jabetzen zen. Horretarako dirua bere kontu korranteetan sartzen zuen, baita hamasei merkataritza-sozietate eta hamalau higiezin enpresatan ere. Horrela, 1,5 milioi euro gutxienez bereganatu ei zituen. Bravok zergapetuen zorra kitatua bezala agerrarazi edo zergaduna kaudimengabetzat jotzen zuen. Ondorioz, Ogasuna bost milioi euro jaso gabe geratu zen. Gertaerak 1995. urtean hasi ziren. Urte gehiegi iruzurra orain arte argitaratu ez izateko. Zerbait sakonagoaren azken muturra ote? Politikari batzuek zer edo zer "usaindu", alfonbra altxatu eta berriz ere bere lekuan jarri ote zuten? Erantzukizun penala epailearen esku geratuko da. Batzar Nagusietako Ikerketa Batzordeak argitu beharko du berriz erantzukizun penala. Egiteagatik edo egiten uzteagatik. Eta ordain dezala dagokionak.

Juan Mari Arregi

Hain urrutira joan gabe

HAUTSAK ederki harrotu ditu Keith Johnson kazetariak *The Wall Street Journal* egunkari estatubatuarrean *Basque Inquisition: How Do You Say Shepherd in Euskera?* izenburupean argitaratutako artikuluak. Kazetariak asmatu du nola gutxietsi euskara eta ordaintan kexa andana jaso du. *Tiraka* blogean (www.tiraka.net), "jj Agirre" erabiltzaileak hedabide espainolistek euskara nola erasotzen duten eta erantzuteko dugun ahulezia aipatu du: "(...) Euskaldunok nahiz euskaltzaleok, izan abertzale, izan kosmopolitt, izan español edo frantses, ez dugu adorerik edota gaitasunik erakutsi orain arte, eraso lotsagarri eta iraunkor horri erantzuteko. Españolista uniformistek egiten duten azpijan etengabe horrek neurriko erantzuna behar du, bertoko instituzioen aldetik, lehenik eta behin. Guor estrit jurnal-ekoei (sic) eman zaienaren neurrikoa gutxienez".

ETBren euskarazko kate berria haur eta gazteentzat


ETBREN lurreko telebista digitaleko hirugarren katea euskarazkoa izango da. Hurrengo urtean jarriko dute martxan eta haur eta gazteentzako programazioa eskainiko du. Lau garren katea sortzeko oinarriak ere zehaztuko dituzte. Eleanitza izango da eta albistegiak eta eduki berriak izango ditu ardatz.

EHEren Ezabaketa Astea

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ(EHE) taldeak Ezabaketa Astea egingo du hilaren 16ra bitartean. Gaztelaniazko seinale eta kartelak ezabatu eta pegatinak jarriko dituzte.

BAHEA

Sagrario Aleman, Arturo Kanpion euskaltegiko arduradunak Nabarran esanak: "Garai batean ikusi zen eskola erdalduntzeko oso tresna ona zela. Beraz, logikoa zen pentsatzea eskola euskalduntzeko oso tresna ona izango zela. Gertatzen da erdarak kanpoan zituen bitartekoak euskarak ez dituela eta ez zituela".



Herriko plaza 7 - 20150 Aduna
Tfnoa: 943 69 34 81

Eguneko menua 9,50 €

Asteburuko menua 18 €

Asteburutan karta

Akatsa, akats edo propaganda arma

ETA-K BI LEHERGAILU jarri eta bietan kale egin duela? Agian bai, beste askotan ere gertatu dira akatsak. Baina akaso ez, eta egin dezakeenaren eta gauzaten ez duenaren agerle ere izan daiteke. Nola neurtu horiek? Gehientsuenetan agerierian ikusten denari ematen zaio garrantzia, baina azpimarratutakoaren azpian besterik ere agertzen da sarri. Hortik aurrera, interpretazio guztiak zabalik daude eta denak dira kontuan hartze-koak. Edozelan ere, denak adierazten du halakoren batean gertatuko dela ETAREN jarduerak atzeraezinezko egoerarik ekarriko duela. ETAK min egin nahi duenean hala egingo du, lehenxeago edo geroxeago; horretarako duen gaitasuna ez litzateke zalantzan jarri beharko.

IÑIGO URKULLU izango da EBBko lehendakari berria. EAJK saihestu du duela lau urteko barne lehia gupidagabea. Besteak beste, Ibarretxe lehendakariaren egitasmoek ekarri dute kontsentsu beharra, bere asmoei aurre egiteak EAJren baitan oso egoera latza ekar zezakeelako.



Josu Jon Imazek berak ere aitortu zuen zatiketa arrisku hori bere agurrean. Zatiketa arriskutik kontsentsura pasa liteke unean uneko akordio batez, baina azpian dauden planteamendu desberdinak estrategia politiko bateratuan ondo josteko askoz gehiago behar da.

Joseba Egibarrek Espainiako hauteskunde orokorretarako alderdi abertzaleen batasunaz hausnartzea proposatu zuenean, Iñigo Urkulluk halako proposamenak ez dagozkiola berari erantzun zion publikoki. Bere desadostasuna adieraz zezakeen beste era batera, politikariek badituzte halakoetarako baliabide ugari, baina Urkulluk publikoki eta zuzenezuzenean Egibarren proposamena

baliogabetzea erabaki zuen. Eta Egibarrek proposamen zehatzik ez zegoela eta berak hausnarketa besterik ez zuela eskatzen ere publikoki berretsi zuen, besteak beste ARGIAN.

DONOSTIAN hilaren 7an atxilotutako lau gazte aske geratu dira. Donostiako kale borroka sarearen desegitea iragarri zuen Barne ministroak atxilotekin. Donostiako Segiren azpiegitura desegintzat ere eman zuen, aldi berean. Lau eguneko inkomunikazioa, tratu txarren salaketa, komunikabide askoren ohiko idazkera eta salaketa faltsuak... sarriegi errepikatzen den egoera.

Baina hizkuntzak kultura egiten du erabileraren poderioz eta Segiren egiturak *desegiten* direnean, laster datorkigu burura –gehienetan zeharka– ETAREN komandoak bezala *desegiten* direla. Absurdia da pentsatzea Segi edo honek ordezkatzeko duena desegin litekeenik, baina saiatze horretara ohitzen ari da gizartea, inpotentzia, desinformazioa edo ezezagutzaren ondorioz.



TALLERES

Mitxelena s.coop.

Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000 · Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago poligonoa, 21 · Hernani -Gipuzkoa-

☎ 943 552 512 / 552 516 · Fax: 943 552 816 · info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com